



2025EKO JARDUEREN MEMORIA

UNRWA Euskadi

Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia

erkidego batzordeao



unrwa
euskadi

erkidego batzordea



unrwa
euskadi



Aurkibidea

Nor Gara.....	07
Non egiten Dugu Lan.....	08
Palestinako Lurralde Okupatua.....	10
Zisjordania.....	12
Gazako Zerrenda.....	14
Siria.....	16
Jordania.....	18
Libano.....	20
<i>UNRWA Euskadi</i>	
Gure Lana.....	22
Ekintza Humanitarioa eta Garapena.....	24
Herritartasun Globalerako Hezkuntza.....	27
Beste Albiste eta Ekintza Garrantzitsuak.....	33

A dark, somber photograph of a destroyed urban area. In the background, there is a large pile of rubble and a partially destroyed tower. In the foreground, a dirt path leads away from the viewer, with several people walking along it. The overall atmosphere is one of devastation and displacement.

**6 MILIOI PALESTINAR
ERREFUXIATU BIZI DIRA
GAZAKO ZERRENDAN,
ZISJORDANIAN (EKIALDEKO
JERUSALEM BARNE),
JORDANIAN, LIBANON ETA
SIRIAN, HAIEN EGOERA
ZUZENTASUNEZ ETA BEHIN
BETIKO KONPONTZEAREN ZAIN.**

**PALESTINAKO ERREFUXIATUAK
MUNDUKO ERREFUXIATURIK
ZAHARRENAK DIRA.**

NOR GARA



UNRWA, NBE PALESTINAKO ERREFUXIATUEN AGENTZIA

1950eko maiatzaren 1ean UNRWA agentziak bere lana hasi zuen, 700.000 errefuxiatu baino gehiagori larrialdiko laguntza emateko eta gizarte-laguntzako programak hasteko helburuarekin.

76 urte eta gero, UNRWA erakundearen xedea da Jordanian, Libanon, Sirian eta Palestinako lurralde okupatuan (hau da, Gazako zerrenda eta Zisjordania, Ekialdeko Jerusalem barne) Palestinako ia 6 milioi errefuxiaturik laguntza, babesa eta defentsa ematea, haien egoera zailari irtenbide baketsu eta iraunkor baten zain gauden bitartean.

UNRWA ia osorik NBEko estatu kideen, erakunde publiko eta pribatuen eta herritarren borondatezko ekarpenek finantzatzen dute.

NOLA EGITEN DU LAN AGENTZIAK

UNRWA agentziak ongizatearen eta giza garapenaren alde lan egin du Palestinako errefuxiatuen lau belaunalditan zehar. Hasiera batean, hiru urte iraungo zituen aldi baterako erakundea zen. Geroago, ordea, Agentzia pixkanaka bere programak egokitzuz joan zen, sei hamarkadatan baino gehiagoan errefuxiatuen beharren aldaketak asetzeko.

UNRWA agentziak garapenerako eta laguntza humanitariorako programak eskaintzen dizkie Palestinako ia 6 milioi errefuxiaturik 58 kanpamentutan, hezkuntzako, osasuneko, gizarte-zerbitzuetako, mikrofinantzaketako, giza eskubideen babeseko eta erantzun humanitarioko eta larrialdiko zerbitzuen bitartez.

Sortu zenetik, Agentziak etenik gabe egin du lan, bai Ekialde Hurbilean egondako barealdietan, bai liskar armatuen garaian.

Izan ere, Palestinako errefuxiatuen giza garapenerako nazioarteko konpromisoaren eredu, zuzenean eskaintzen dizkie zerbitzuak.

UNRWA erakundeak ehunka eskola kudeatzen ditu zuzenean Ekialde Hurbil osoan. Gainera, Agentziak osasun-arreta ematen du lehen mailako osasun-zentroen eta urruneko komunitateetara iristen diren arreta-puntu mugikorren bidez. Gizarte-arretarako zentroak, garapen komunitarioko zentroak eta emakumeentzako zentroak ere baditu.

UNRWA EUSKADIREN KONPROMISUA

2006an sortu zen UNRWA Euskadi, eta bi helburu nagusi ditu: batetik, euskal gizarteari Palestinako errefuxiatuek bizi duten egoeraren berri ematea eta, bestetik, UNRWA agentziak haiekin duela 76 urtetik egiten duen lan humanitarioa zabaltzea. Horrez gain, erakundeak funts publiko zein pribatuak biltzen ditu UNRWA agentziari biztanleria horri eskaintzen dizkion zerbitzuak mantentzen laguntzeko.

NON EGITEN DUGU LAN





unrwa
euskadi

LÍBANO



493.201 pertsona erregistratuak
12 kanpamendutan

SIRIA



586.842 pertsona erregistratuak
9 kanpamendutan

ZISJORDANIA



917.942 pertsona erregistratuak
19 kanpamendutan

GAZA



UNRWAK 2,1 milioi pertsonari
ematen die laguntza
1.556.061 pertsona erregistratuak
8 kanpamendutan

JORDANIA



2.371.389 pertsona erregistratuak
10 kanpamendutan

PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUA

2025ean, Gazako zerrendako egoera humanitarioak herritarrentzat hondamenezkoa izaten jarraitu zuen. Izan ere, muturreko heriotzako eta suntsipeneko mailei aurre egin behar izan zieten. Behar humanitarioak ikaragarriak izan ziren, bertan bizi diren ia pertsona guztiek elikagaien segurtasunik eza larria pairatzen baitute eta osasun-sistemak gainezka jarraitzen baitu. Gainera, indarrez lekualdatutako 1,9 milioi pertsonek babesteko materialak behar dituzte, baina Gazan sartzeko aukera oso murriztuta dago oraindik. Aldi berean, ur- eta saneamendu-zerbitzuek porrot egiteak eragin suntsitzailea izan du osasun publikoan.

Zisjordanian ere, egoera humanitarioak okerrera egin zuen larriki 2025ean zehar, Palestinako errefuxiatuei eragin dieten bortizkeriaren, suntsipenaren eta lekualdatze behartuen ondorioz. 2025eko urtarrilean Israelgo indarrek "Burdinazko Horma" operazioa abian jarri ondoren, gutxi gorabehera 40.000 pertsona kanporatu zituzten Jenin, Tulkarm eta Nur Shams-eko errefuxiatuen kanpamentuetatik, 1967tik izan den lekualdaketa zabalena eta luzeena. Politika eta praktika horien ondorioz, 33.000 pertsona inguruk lekualdatuta jarraitzen dute, eta oso egoera estuan bizi dira: familia askok ezin dute ordaindu alokairu bat, eta behin eta berriz lekualdaketa jasan behar izaten dituzte aterpeen pilaketa edo desegokitasunagatik.

Horrez gain, kolono israeldarrek Zisjordaniako palestinarren aurka inoiz baino indarkeria gehiago erabili dute eta, ondorioz, jende gehiago hil da, etxeak suntsitu dira eta komunitate osoak lekualdatu behar izan dira. Era berean, Israelgo agintariek ezarritako murrizketek larriki oztopatu dute lan humanitarioa, hezkuntza, osasun-arreta eta babes bezalako funtsezko zerbitzuak eskuratzeko aukerari eraginez. Sendagaien urritasunak eta % 28,6ko langabezia-tasak are gehiago larriagotu dituzte dagoeneko gogorrek diren Palestinako errefuxiatuen bizi-baldintzak.





PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUA



ZISJORDANIA

ZISJORDANIA EKIALDEKO JERUSALEM BARNE

Zisjordanian eta ekialdeko Jerusalemen dauden Palestinako errefuxiatuen segurtasun-baldintzek okerrera egin zuten nabarmen 2025ean. Israelgo indarrek eskala handiko operazio militarizatuak areagotu izanak, kolonoen indarkeria handitzeak, egonlekuak hedatzeak, oinarrizko eskubideen urratze gero eta handiagoek eta oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko murrizketek muturreko ahultasuneko egoera sortu zuten.

2023ko urriaz geroztik, indarkeria maila oso altuetan mantendu da. 2025ean 240 palestinar hil eta 830 zauritu zituzten Zisjordanian. Urte horren hasieran, Israelgo indarrek eskala handiko operazio bat abiarazi zuten Zisjordaniako iparraldean, eta derrigorrezko lekualdatzerik luzeena eragin zuen 1967tik. Jenin, Tulkarm eta Nur Shams-eko errefuxiatuen kanpamentuetan zituzten etxeak uztera behartu zituzten 40.000 pertsona inguru, etxebizitza eta azpiegitura zibilen suntsiketa orokorraren ondorioz.

2025aren amaieran, ia 33.000 pertsonak lekualdatuta eta pilatuta, segurtasunik gabe eta babesik gabe bizitzen jarraitzen zuten. Ogibideak galtzeak, bizirauteko aukerak agortzeak eta oinarrizko zerbitzuetarako sarbide mugatuak krisialdia larriagotu zuten. Operazio militarren ondorioz, UNRWA agentziak Zisjordaniako iparraldean dituen instalazio ugari ere itxi behar izan zituen, ikastetxeak eta osasun-zentroak barne, eta Palestinako milaka errefuxiatuentzako funtsezko zerbitzuak murriztu zituen.

Gertakari horiek Israelgo legez kanpoko egonlekuak lurralde okupatuan hedatzearen testuinguru zabalagoan kokatzen dira. Izan ere, Nazioarteko Justizia Gortearen arabera, "de facto" egindako anexoio baten baliokidea da. Egoera hertsatzaile horretan, ugaritu egin ziren eraispenak, derrigorrezko husteak, lurren konfiskazioa eta kolonoen erasoak: 10.000 palestinar baino gehiago lekualdatu zituzten indarrez 2023ko urritik 2025eko urrira bitartean, eta kolonoen 1.770 eraso jaso ziren 2025ean bakarrik.

Ekialdeko Jerusalemen, Israelgo legedi berriak izugarri eragin zion UNRWA agentziaren lanari, ahalmena mugatuz. 2025eko maiatzean, Agentziak bertan zituen sei ikastetxeak itxi egin zituzten, Israelgo agintariek hala aginduta, eta bertan behera geratu zen 783 ikasleren aurreko aurreko irakaskuntza Israelgo armadak Shufat-eko errefuxiatuen kanpamentuko hiru eskola itxi eta horietan baimenik gabe sartu eta gero. Israelgo indarrak indarrez sartu ziren UNRWA agentziak ekialdeko Jerusalemen dituen instalazioetan. Azkenean, suntsitu eta erre egin zituzten 2026aren hasieran. Estatu kide batek Nazio Batuen agentzia baten aurkako aurrekaririk gabeko eraso larria da.



GAZAKO ZERRENDA

GAZAKO ZERRENDA

2025ean, Gazako zerrendako 2,1 milioi biztanlek hondamenezko krisialdi humanitarioan murgilduta jarraitu zuten. Egoera larriagotu egin zen martxoaren 2tik maiatzaren 18ra bitartean Israelek laguntza humanitario guztiari ezarritako blokeoaren ondorioz. 2025eko urriaren su-etenaren ondoren ere sarrerak oso murriztuta jarraitu du. Muga horiek areagotu egin zuten bizi-baldintzen narriadura, eta asko zaildu zuten erantzun humanitarioaren lana.

2023ko urriaren 7tik 2025eko abendura arte, 71.266 pertsona hil eta beste 171.222 zauritu ziren, horien artean 414 hildako eta 1.145 zauritu su-etenaren ondoren.

Gazako egitura guztien % 81 inguru hondatu da. Sortutako 60 milioi tona zaborren artean giza hondakinak, lehertu gabeko munizioak, amiantoa eta beste material arriskutsu batzuk daude, eta horrek epe luzerako arriskuak sortzen ditu berreskuratzeari, ingurumenari eta segurtasunari dagokienez. Osasunera zuzendutako instalazioen % 90a baino gehiago eta ur-, saneamendu- eta higiene-azpiegituren % 80a suntsitu egin dira; energiako, estolderiako eta hondakin solidoetako zerbitzuak, berriz, lur jota geratu dira, kalte handiengatik eta oinarrizko konponketako materialen faltagatik.

Dagoeneko gainezka egindako osasun-sistema gaixotasun kroniko eta larriak dituzten milaka pertsonen beharrei erantzun ezinik geratu zen. Saihestu zitezkeen erikortasunak eta hilkortasunak gora egin zuten, eta eragin psikosoziala jasanezina izan zen beldurra, etengabeko lekualdaketak eta galera konponezinak pairatzen dituzten herritar ahituentzat. Gosea eta malnutrizioa maila kezkarrietara iritsi ziren.

2025eko urtariletik indarrean dagoen Israelgo legediak ezarritako murrizketek are gehiago larriagotu zuten krisialdia, asko mugatu baitzuten hornigai humanitarioen eta UNRWako langileen joan-etorriak Gazarantz eta Gazaren barruan.

Baldintza horiek gorabehera, Agentziak erantzun humanitarioaren erdigunean jarraitu du. 11.500 langile palestinarrek baino gehiagok, gehienak askotan lekualdatuta, muturreko eta arrisku handiko egoeretan funtsezko zerbitzuak eskaintzen jarraitzen dute. 2023ko urriaz geroztik, UNRWA agentziako langileen 382 kide hil dituzte eta UNRWako dozenaka instalazio hondatu edo suntsitu dituzte. Hala ere, Agentziak larrialdiko babesleku kolektiboen sarerik handiena du, eta Gazako errefuxiatu palestinarrei lehen mailako osasun-arreta, hezkuntza eta oinarrizko zerbitzuak ematen jarraitzen du.



SIRIA

SIRIA

2025. urtea neurritzko baikortasunez hasi zen Sirian, Bashar al-Assaden erregimenaren amaieraren ondoren trantsizio politiko nahiko txukun egiteko aukeraren aurrean. Hala ere, baikortasun hori laster desagertu zen, zenbait tokitan indarkeria berriro agertu zelako eta Israelek Siriako lurraldean etengabe egindako aldebakarreko erasoak zirela eta.

Gatazkaren ondorioak ekonomian eta azpiegitura publikoetan sakonak dira oraindik. Palestinako errefuxiatuen artean izandako elikagaien segurtasunik eza izugarri hazi zen: 2023an % 56koa izatetik 2024an % 63koa izatera eta, azkenik, 2025ean % 92koa izatera. Sirian dauden Palestinako 418.000 errefuxiatuen % 30 inguruk barneko lekualdaketa luzeko egoeran jarraitzen du. Herrialdeko azpibarrutien erdia baino gehiago gerrako hondakin leherkorrekin kutsatuta dago, Palestinako familia errefuxiatu ugari bizi diren oso eremu jendetsuak ere bai. Arrisku horiek argi eta garbi erakusten dituzte trantsizioko gobernuak eta hasierako suspertzeko ahaleginek gaitzitu beharreko erronka handiak.

Gatazkaren aurretik, hiru errefuxiatuen kanpamentuk, Ein el Tal, Yarmouk eta Dera'a, Sirian dauden Palestinako errefuxiatuen herena hartzen zuten. Ia bertako guztien lekualdaketak, suntsipen orokorrarekin batera, itzultzeko oztopo nagusia izaten jarraitzen du, bai herrialdearen barruan, bai mugetan zehar. Nahiz eta gaur egun ahula izan, eskualdeak biztanleriaren mugimendu handiak bizi izan ditu, Palestinako errefuxiatuen itzulera nabarmen hazi delarik Siriara, baita lurraldearen barruan ere, oso baldintza zailetan.

2025ean erregimena erori ondoren, itzultzeko joan-etorriak hirukoiztu egin ziren aurreko bost urteetan izandako guztizkoaren aldean. Itzulera horiek, neurri handi batean, joan-etorrien baldintzak okertzeagatik, hau da, alokairuak ordainezinak izateagatik eta estatus legalik ez izateagatik atzerrian, ugaritu dira, Siria barruko jatorrizko eskualdeetan hobekuntzak egoteagatik baino.

UNRWA agentziak egindako galdeketen arabera, Libanon eta Jordanian elkarrizketatutako Palestinako errefuxiatuen erdia inguruk Siriara itzuli nahi dute egunen batean. Hala ere, etxebizitzaren suntsipen handiak, aukera ekonomiko mugatuak eta segurtasunaren inguruko kezka etengabeek disuasio-faktore gisa jokatzen jarraitzen dute. Izan ere, Libanon, bizi-baldintzak larriagotzeak, legezko bizilekurik ezak eta urritasun ekonomikoak Siriara itzultzera bultzatzen dute jende asko. Laguntza zehatzik gabe, askok segurtasunik eta duintasunik gabeko itzulbideetara jotzeko arriskua dute eta, hala, haien zaurgarritasuna areagotuko da.



JORDANIA



JORDANIA

Eskualdearen ezegonkortasunaren ondorio larriei aurre egiten jarraitzen du Jordaniak, presio ekonomikoak eta errefuxiatuen agerpen luzea barne. Palestinako errefuxiatu gehienek herritartasun jordaniarra duten arren, Gazan bizi ziren 181.600 pertsonetatik askok ez dute horrelakorik, eta horrek mugatu egiten die zerbitzu publikoak, ogibideak eta babes juridikoa eskuratzeko aukera. Horietako askok, Gazatik 1967an ihes egin zutenak, oraindik ez dute onartutako dokumentaziorik, nahiz eta hamarkadak daramatzaten Jordanian bizitzen. Atzerritartzat jotzen dira, eta enplegu informalaren mende daude neurri handi batean. Hala, pobreziako zikloak eta laguntza humanitarioarekiko mendekotasuna betikotu egiten dira.

Gatazkak iraun zuen bitartean Siriatic Jordaniara ihes egin zuten eta herrialdean jarraitzen duten Palestinako 19.600 errefuxiatu ingururen artean, 3.000 inguruk ez dute Jordaniako dokumentazio ofizialik. Konpondu gabeko egoera juridikoak, bizileku-baimenik, baliozko dokumentaziorik edo onarpen formalik eza barne, mugatu egiten du enplegua, hezkuntza eta osasun-arreta eskuratzeko aukera, eta UNRWA agentziaren menpe uzten ditu guztiz osasunaren, hezkuntzaren, babesaren eta larrialdiko laguntza ekonomikoaren hornidurarako.

Jordaniako gobernuak bultzatutako Siriatic datozen Palestinako errefuxiatuak ez onartzeko politikak, 2013tik indarrean dagoenak, gizatalde horri legezko estatus eta dokumentazio zibil egokia lortzea oztopatzen jarraitzen du, atxiloketa, deportazio eta herrigabe izaera bezalako babesaren aurkako arrisku larrien aurrean jarritz.





LIBANO

LIBANO

Libanon Palestinako errefuxiatuek legezko estatusik ez izateak alderdi askoko ahultasunaren funtsezko eragilea izaten jarraitzen du.


Palestinako 231.000 errefuxiatu inguru bizi dira bertan, Libanoko 209.000 pertsona eta Siriatic etorritako 22.000 pertsona inguru. Horiek guztiak gizatalderik ahulenetan daude, eta belaunaldi anitzeko marjinazioari egin behar diote aurre. Horrez gain, % 80 baino gehiago pobrezia-atalasearen azpitik bizi da. Legezko murrizketek Libanon dauden Palestinako errefuxiatuei eragozten diete zerbitzu publikoak eskuratzea, lanbide sindikatuetan aritzea edo ondasunak izatea. Herrialdean bizi diren eta Siriako jatorria duten Palestinako errefuxiatuak are ahulagoak dira: 2024ko maiatzaz geroztik, politika ofiziala aldatu ondoren, legezko bizilekua berritzeko ezintasunak eguneroko bizitzaren ia alderdi guztiei eragin die, atxilotzeko arriskuan jarriz, lan formaletik kanpo utziz eta erregistro zibilerako, eskolako azterketetarako, hezkuntza-ziurtagirietarako eta mugitzeko askatasunerako sarbidea mugatuz.

Testuinguru horretan, Palestinako errefuxiatuen kanpamentuetako inguru babesleak okerrera egin du nabarmen, erresilientzia komunitarioa higatu eta laguntzako sareak ahuldu dituzten krisialdiak bat egitearen ondorioz. Emakumeek, haurrek eta beste gizatalde ahul batzuek indarkeriako, esplotazioko eta abandonuko arrisku handiagoa dute. UNRWA agentziak eta Nazio Batuen beste agentzia batzuek egindako ebaluazioek erakutsi dute indarkeria fisikoa eta psikosoziala orokortu direla, baita haurren lanarekiko gero eta menpekotasun handiagoa dagoela ere, familiek bizibaldintza eskasei aurre egin behar baitiete.

Palestinako errefuxiatuek laguntza psikosozialeko eta laguntza juridikoko zerbitzuak eta gune seguruak eskuratzeko aukera UNRWA agentziaren esku dago neurri handi batean.



GURE LANA



UNRWA EUSKADIREN LAN-EREMUAK

UNRWA Euskadiren lana honako jarduera-arlo hauetan garatzen da:

1. Ekintza humanitarioa, larrialdia eta garapena.

Agentziak Palestinako errefuxiatuei ematen dizkien zerbitzuen kalitatea bultzatzeko eta iraunarazteko, UNRWA Euskadik finantzaketa jasotzen du, publikoa (lankidetzaren deszentralizatua) zein pribatua (enpresak, bazkideak eta banakako dohainak).

Jarduten den lan-eremuak dira osasun-laguntza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, azpiegiturak, mikrofinantzak, elikagai-laguntza, larrialdiak eta giza eskubideen babesa.

2. Herritartasun globalerako hezkuntza.

UNRWA Euskadiren iritziz, herritartasun globalerako hezkuntza prozesu bat da, munduko egoeraren inguruan kontzientzia kritikoak pizteko eta herritarrei parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko eta bidegabekeriaren aurka modu solidarioan borrokatzeko tresnak emateko, eta garapen global eta jasangarri baten alde lan egiteko, tokian tokikotik abiatuta globaltasunera iritsiz.

Herritartasun globalerako hezkuntza zeharkako tresna dela ulertzen du, bizitzako etapa guztiak hartu behar dituena eta sentsibilizazioaren bidez eremu formaletan (eskolak eta unibertsitateak, adibidez) nahiz formalek ez direnetan eta informaletan txertatzen dena.

Hala, UNRWA Euskadi lanean ari da euskal herritarrek Palestinako ia 6 milioi errefuxiatu baino gehiagok bizi duten egoeraren inguruan sentikor bihurtzeko eta UNRWA agentziaren lan humanitarioa zabaltzeko. Honako hauek dira lan-ildoak:

Sentsibilizazioa: hitzaldi, jardunaldi, zinemaziklo eta erakusketa ibiltarien bidez, baita unibertsitate eta irakaskuntzaren sektorerantz zuzendutako prestakuntzako ikastaro eta tailerren bidez ere, besteak beste. Prestakuntzako jardunaldi edo zikloek giza eskubideei lotutako hainbat gai lantzen dituzte.

Bakearen kultura, herritartasun globalerako hezkuntza eta genero-berdintasuna.

Hezkuntza eremu formaletan, informaletan eta formalek ez direnetan: euskal hezkuntza komunitate kontzienteagoa, solidarioagoa eta parte-hartzaileagoa sortzen laguntzen dugu, 2030 Agenda eta giza eskubideak betetzeko eta metodologia artistiko eta berritzaileak erabiliz.

EKINTZA HUMANITARIOA, LARRIALDIA ETA GARAPENA

2025. urteak agerian utzi du, beste behin ere, nazioarteko elkartasunak eta lankidetzak gero eta konplexuagoak diren erronka globalen aurrean duten garrantzia. Ekialde Ertainean, egoera humanitarioak nabarmen egin du okerrera, Gazako zein inguruko herrialdeetako Palestinako errefuxiatuei bereziki eraginez.

2025eko urtarrilean eta urrian Gazako zerrendan su-etenak izan ziren arren, larrialdi humanitarioak jarraitu zuen aldizkako bonbardaketekin, lekualdaketa masiboekin eta funtsezko zerbitzuen etenekin, eta uholdeek eta oinarrizko horniduren faltak larriagotu egin zuten. Zisjordanian, indarkeriaren gorakadak eta operazio militarrek eta kolonoen erasoek ezarritako murrizketek milaka familiaren ahultasuna sakondu zuten. Egoera larria eskualdeko beste leku batzuetan ere errepikatu zen: Libanon, krisialdi ekonomikoak eta oinarrizko zerbitzuen gaineko presioak bete-betean jo zituzten errefuxiatuak; Sirian, itzulerak suntsitutako eta segurtasunik gabeko inguruan eman ziren; eta Jordanian, egiturazko mugek familia errefuxiatuei oinarrizko eskubideak eskuratzea oztopatzen jarraitu zuten.

Egoera horren aurrean, Palestinako errefuxiatuek egiturazko gabeziei aurre egiten jarraitzen dute elikaduran, osasunean, hezkuntzan eta ogibidean. UNRWA agentziak sendotu egin du bere lana bost jarduera-eremuetan, 5,9 milioi pertsonari baino gehiagori laguntza humanitarioa, lehen mailako osasuna, hezkuntza eta laguntza psikosoziala emanez. Esparru horretan, UNRWA Euskadik, euskal erakunde emaileen laguntzari esker, Gazan, Zisjordanian, Sirian eta Libanon bizi diren Palestinako errefuxiatuen behar izugarriari erantzutea izan du helburu 2025ean egin dituen esku-hartzeetan.

Siria:

eLankidetza - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak Sirian dauden Palestinako 40.386 errefuxiatuen gizarte-inklusioa, ahalduntzea eta bizi-kalitatea hobetzea sustatu zuen. Horietatik 26.477 emakumeak ziren eta, 13.735, haurrak. Pertsona horien autonomia eta ongizatea hobetu zen emakumeen sexu-, ugalketa- eta ama-osasuneko arretarako ekintzen bidez eta laneratzera bideratutako prestakuntza tekniko espezializatuaren bidez. Horrez gain, egoera oso ahulean dauden gizataldeentzako (emakumeak, adinekoak, desgaitasunaren bat duten pertsonak eta adingabeak) jarduera zehatzak egin ziren, hala nola laguntza psikosoziala emateko saioak, legeholkularitza, eskubideen gaineko sentsibilizazioa, errehabilitazio fisikoko zerbitzuak eta jolas- eta aisialdi-jarduerak.

Gainera, agentziak funtsezko eginkizuna izan zuen pertsonen erresilientzia eta autonomizazioa sustatzeari dagokionez, Sirian dauden Palestinako 6.015 errefuxiaturi eskudiruzko laguntzak emanez. Horri esker, oinarrizko bizi-beharrak bete eta haien bizi-baldintzak hobetu ahal izan zituzten.

Beste alde batetik, Athletic Club Fundazioak Palestinako haur errefuxiatuen hezkuntza-inklusioa eta garapen fisiko eta emozionala indartu zituen ikastetxeetan, Siriako 16 ikastetxetan kirol-jarduerak sustatuz. Hala, 8.214 adingabek hartu zuten parte gorputz-hezkuntzako jardueretan.

Bizkaiko Foru Aldundiak Palestinako 5.500 errefuxiatuen osasunerako eskubidea babestu zuen eta, bereziki, 3.025 emakumeren eta 12 hilabete baino gutxiagoko 94 haurren ama-haurren osasuna eta sexu- eta ugalketa-osasuna, beharrezko txertoak jaso zituztenak. Esku-hartze horiek Homs eta Hama kanpamentuetako osasun-zentroetan egin ziren, arrakastaz.

Gazako zerrenda:

eLankidetza - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia funtsezkoa izan zen Gazako zerrendako 323.990 pertsonari larrialdiko osasun-arreta emateko, batez ere haurdun zeuden emakumeei arreta emateko, haurrei txertoak jartzeko, gaixotasun kronikoak zituzten pertsonen tratamendua emateko eta haurren desnutrizio kasuak diagnostikatzeko.

Beste alde batetik, Gasteizko udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren **Arabako Larrialdi Funtsak** lehen mailako arretako 1.000.000 kontsulta eta adingabeei 30.000 desnutrizio-proba egiten lagundu zuen. Haurren desnutrizioak izugarri egin du gora gatazkak iraun duen bitartean eta, beraz, oso garrantzitsua izan da hura detektatzea eta tratatzea.

Ildo beretik, **Banaketa Solidarioa Fundazioaren** ekarpena erabakigarria izan zen Gazan larrialdiko osasun-arreta bermatzeko, arreta berezia jarriz ama-haurren zaintzan eta sexu- eta ugalketa-arretan. Hala, 980.337 pertsonari lagundu zitzaion.

Era berean, **Bizkaiko Batzar Nagusiek** UNRWA agentziak Gazan duen osasun-programa babestu zuten, emakumeetan eta haurretan arreta jarriz ama-haurren osasun-arretaren eta sexu- eta ugalketa-arretaren bidez. 568.595 emakumetara iritsi zen eta 29.507 adingaberi txertoa jarri zitzaion, eta beste 44.496 adingaberi desnutrizio-proba egin zitzaion. Ildo beretik, **Bizkaiko Foru Aldundiak** krisialdi humanitarioko egoeran dauden Gazako biztanleen osasunerako eskubidea babesten lagundu zuen, 980.337 pertsonari larrialdiko osasun-arreta emanez.

Era berean, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** ahalbidetu zuen krisialdi humanitarioko egoeran dauden Zerrendako 1.092.735 pertsonak osasun-arreta jaso ahal izatea, gaixotasun kronikoak artatzeko, haurdun dauden emakumeei jaio aurreko zaintzak emateko, bost urtetik beherakoei txertoak jartzeko eta adingabeen desnutrizio-kasuen diagnostikoa egiteko jardueren bidez. Horrez gain, **Bilboko udalak** Gazako osasun-arretaren jasagarritasunari lagundu zion, bi osasun-zentrotako uraren eta elektrizitatearen hornidura-sistemak konpondu baitzituen eta 1.500.000 pertsonari larrialdiko osasun-arreta eman baitzuen; horien artean, 12.000 adingaberi desnutrizio-probak egin zitzaizkien, gaixotasun kronikoak zituzten 300.000 pertsonari arreta eman zitzaien, 10.000 haurdun osasun-zaintzak jaso zituzten eta bost urtetik beherako 65.000 adingabek OMEk gomendatutako txerto guztiak jaso zituzten.

Era berean, **Amorebieta-Etxanoko, Basauriko, Erandioko, Ermuko, Eskoriatzako, Amezketako, Bergarako, Irurako, Villabonako, Zaldibarko, Zarauzko eta Zeanuriko udalak** batu ziren Euskal Herriko Funtsaren bitartez, Zerrendako emakumeentzako eta haurrentzako osasun-arreta babesteko eta, hala, 323.990 kontsulta mediko egiteari lagunduz (% 58a, emakumeei). Kontsulta horien barruan, 10.147 adingaberi txertoa jarri zitzaien eta beste 14.643 adingaberi desnutrizio-proba egin zitzaien. Gainera, haurdun zeuden 13.038 emakumek jaio aurreko arreta jaso zuten, eta gaixotasun kronikoak zituzten 65.883 pertsonak arreta medikoa jaso zuten.

Deba, Eskoriatza, Leioa eta Muskizko udalek batera erantzun zuten eta Gazako haurren osasun-arreta hobetzen lagundu zuten. Izan ere, egunean 13.000 kontsulta mediko egin ziren, eta lortu zen 213.000 haurri polioaren aurkako txertoa jartzea eta 127.000 adingaberi desnutrizioaren bila aztertzea. Azken horien artean, 9.000 adingaberi desnutrizioa diagnostikatu zitzaien eta elikadura terapeutikoa jaso zuten.

Azkenik, **Beasaingo udala** ere funtsezkoa izan zen Gazako zerrendako 323.990 pertsonari larrialdiko osasun-arreta emateko, batez ere haurdun zeuden emakumeei arreta emateko, haurrei txertoak jartzeko, gaixotasun kronikoak zituzten pertsonari tratamendua emateko eta haurren desnutrizio kasuak diagnostikatzeko.



Zisjordania:

Bilboko udalak UNRWA agentziaren osasun-programa babestu zuen, Kalandia kanpamentuko osasun-zentroan familia-plangintzako, jaio aurreko kontroleko eta jaio osteko kontroleko osasun-zerbitzuak eskuratu zituzten 3.197 pertsoneri ama-haurren eta sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbidea bermatuz. Haurdun zeuden emakumeen % 93ak, gutxienez, jaio aurreko lau kontrol-bisitaldi egin zituzten osasun-zentrori; emakumeen % 92 jaio osteko zerbitzuetara joan ziren erditu eta 6 asteen barruan; eta haurdun zeuden emakumeen % 99ri tetanosaren aurkako txertoa jarri zitzaion Kalandia kanpamentuko osasun-zentroan.

Gainera, bost urtetik beherako 1.697 haurrek haurrei zuzendutako osasun-zerbitzuak eskuratu zituzten Kalandia kanpamentuko osasun-zentroan, eta 12 hilabetetik beherakoen % 99ak Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutako txerto guztiak jaso zituzten.

UNRWA agentziak haurdunaldian eta erditzean arreta egokia bermatzea nahi du, emakumeen hezkuntza eta ahalduntzea sustatuz prozesuaren fase guztietan modu aktiboan parte har dezaten, familia-plangintzatik hasi eta erditu ondorenera arte. Kalandia kanpamentuko osasun-zentroaren langileek egiten duten etengabeko jarraipenak aukera ematen du praktika osasungarriak sustatzeko eta arazoak saihesteko.

Libano:

eLankidetzeta - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak laguntza handia eman zion UNRWA agentziaren hezkuntza-programari. Alde batetik, Palestinako haur errefuxiatuei Beiruteko kanpoaldeko hiru ikastetxetan Lehen Hezkuntzarako sarbidea bermatzen jardun zuen eta, bestetik, Palestinako gazte errefuxiatuei kalitatezko lanbide-heziketarako sarbidea sustatzen. Horri esker, haien gaitasunak indartu zituzten, egoera psikosoziala hobetu zuten eta etorkizunerako aukerak hobetu zituzten. Gainera, ekintza zehatzak egin ziren Nahr el Bared kanpamentuko osasun-zentroan emakumei eta haien haurtxoei sexu-, ugalketa- eta ama-haurren arreta eskaintzeko.

eLankidetzeta - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari esker, 2.017 adingabek Lehen Hezkuntzako zerbitzuak eskuratu zituzten, eta 38.050 gaztek lanbide-heziketa ikasi zuten Sibliin Prestakuntza Zentroan. Horrez gain, Nahr el Bared kanpamentuko osasun-zentroan 2.589 emakumeri eta jaioberriri ama-haurren osasun-laguntza eta sexu- eta ugalketa-laguntza eskaini zien proiektuak.

Era berean, **Arrigorriagako eta Zarauzko udalek** 9.261 adingabe Lehen Hezkuntzako zerbitzuetara sartzea sustatu zuten, eta horrek aukera eman zien etorkizuneko aukerak hobetzeko, baita haien familienak ere.



HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA

Ekintzak Euskadin

UNRWA Euskadik Palestinako errefuxiatuen egoera humanitarioarekiko konpromiso osoa dauka. Hori dela eta, herritartasun globalerako hezkuntzaren eta euskal gizartearen sentsibilizatzearen arloko jarduerak burutzen ditu.

2025ean, UNRWA Euskadik "Bakearen soinu-mapa ilustratua, Palestinatik Gipuzkoara" proiektua garatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Proiektuaren helburua izan da Gipuzkoako herritarrak, batez ere gazteak, Palestinako errefuxiatuen egoerara hurbiltzea eta giza eskubideekiko ikuspegi kritikoa eta konprometitua sustatzea.

Proiektua prozesu hezitzaile eta sortzaile gisa sortu da, sentsibilizazioa, gazteen parte-hartzea eta espresio artistikoa uztartuz, enpatia sortzeko eta hausnarketa eta konpromiso soziala sustatzeko. Horretarako, honako jarduera hauek gauzatu dira:

Sentsibilizazioko eta hausnarketako saioak Gipuzkoako ikasleekin

Saioetan, Euskadin bizi den Palestinako Mohammed Farajallah errefuxiatuak hitz egin du. Bere parte-hartzeak ikuspegi hurbila eta bizipenekoa eskaini du. Kontakizunak ikasleekiko lotura zuzena sortu du, Palestinako egoera ulertzea aberastuz alderdi gizatiar eta pertsonal batetik abiatuta.

Bost sentsibilizazioko saioak otsaila eta urria bitartean egin dira, Deustuko Unibertsitatean (Komunikazioko Gradua), Euskal Herriko Unibertsitatean (Antropologiako Gradua) eta Xabier Zubiri Manteo BHI ikastetxean (Turismoko LH Gradua eta batxilergoko 2. maila).



Soinu-mapa ilustratua sortzea: ahotsak, soinuak eta irudiak

Soinu-mapa ilustratua proiektuaren atal nagusia da eta sentsibilizazioko saioretan parte hartu duten ikasleekin elkarlanean sortu da. Palestina eta Gipuzkoa soinu-kontakizunen eta irudien bidez lotzen dituen esperientzia da, entzutera, hausnartzera eta bestearen lekuan jartzera gonbidatuz.

Hezkuntza- eta kultura-eragile ugari hartu dute parte hura egiten. Deustuko Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek Palestinako lurralde okupatutako bizipenei eta osagaiari lotutako hamar soinu-kontakizun sortu dituzte, eta taldekako saioretan grabatu dira. Era berean, Gipuzkoako Artisten Elkartearen hamar artistek irudi bana egin dute kontakizun bakoitzeko, proiektuari alderdi bisuala emanez.

Azkenik, Xabier Zubiri Manteo BHI ikastetxearen Turismoko LH Gradu ikasleek lau ibilbide diseinatu dituzte Urnieta, Zarautz, Erreterria eta Donostia udalerrietan. Ibilbide horiek ingurune bakoitzera egokitutako ibilaldien bidez soinu-mapa ilustratua egiteko aukera ematen dute.

QR-KODEA ESKANEATU SOINU-KONTAKIZUNAK ENTZUTEKO

ESCANEA EL CÓDIGO QR PARA ESCUCHAR LOS RELATOS SONOROS

1. PLAZAREN OIHARTZUNAK

1. LOS ECOS DE LA PLAZA

Bi aldi solidarioaren hasiera denez, Giza Eskubideen garrantzitasuna porratzen da. Bizirik Eskubideak, hain gabe ezin baila gainerako Giza Eskubideak bermatu.

Al ser el comienzo del pasado solidario se introduce el Derecho Humano más importante: el Derecho a la Vida y a la Paz, sin el, no se pueden garantizar los demás Derechos Humanos.

2. ITXAROPEN LEZIOAK PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUAN

Geldaldi honek Hezkuntzarako Eskubidea, UNRWAr ari horretan egiten duen lana eta Baberako Hezkuntza lantzeak aukera ematen ditu, gaitzak modu bakiatuan konpontzea eta giza eskubideak errespetatzea sustatzen dituen baliok eta portaerak sustatzen dituen proiektu gisa.

2. LECCIONES DE ESPERANZA EN EL TERRITORIO PALESTINO OCUPADO

Esta parada permite tratar el Derecho a la Educación, el trabajo de UNRWA en esta materia y la Educación para la Paz como proceso que fomenta valores y comportamientos que promuevan la resolución pacífica de conflictos y el respeto por los Derechos Humanos.

3. OSPITALE BATEN KRONIKAK

Geldaldi honek Osasunerako Eskubideari, UNRWAr ari horretan egiten duen lanari eta Palestinako lurralde okupatuan osasun-baliabiderik ez izateak zer seporetan duenari buruz hitz egiteko aukera ematen du.

3. CORAZÓN DE GAZA. CRÓNICAS DE UN HOSPITAL

Esta parada contribuye a abordar el Derecho a la Salud, el trabajo de UNRWA en esta materia y la falta de recursos sanitarios en el territorio Palestino Ocupado.

4. EGARRIA SETIOPEAN

Geldaldi honek ura nabarmen duen giza elementu batzuk giza, eta, horren ondorioz, ura izateak Giza Eskubide bat dela iragarri daiteke.

4. LA SED BAJO EL ASIEDO

Esta parada resalta el agua como elemento esencial para la supervivencia del ser humano, lo que hace que el Derecho al Agua sea un Derecho Humano.

5. ESPEZIEI ETA AMETSEN ARTEAN. PALESTINAKO MERRATUA

Geldaldi honek Elkarteko Eskubidea, gisetea eta Laguntza Humanitariaraz Gazako Zerrendan sartzeko bideak sakontzen ditu.

5. ENTRE ESPECIES Y SUEÑOS. EL MERCADO DE PALESTINA

Esta parada profundiza el Derecho a la Alimentación, la alimentación y el biólogo existente de la entrada de Ayuda Humanitaria en la Franja de Gaza.

6. AMALEN TXINPARTA

Geldaldi honek Giza Milla Egokia izateko Eskubidea auzerentzen du, argira eta energiaraz sarbidea bermatzeko funtzioa dela azparratzen. Gainera, argiak bakarrean eta irribide zuzen eta bakiatuan mizua helarazten du.

6. LA CHISPA DE AMAL

Esta parada examina el Derecho a un Nivel de Vida Adecuado, destacando que el acceso a la luz y la energía es fundamental para garantizarlo. Además, la luz simboliza la transmisión de un mensaje de paz y de soluciones justas y pacíficas.

7. KOMETA BAT HARRESIAREN GAINETIK

Geldaldi honek Mugimendu Askatasunerako Eskubidea garatzen du, baina Palestinako errefuxiatuek gazi honetan aurkitzen dituzten oztopo uparirik ere.

7. UNA COMETA SOBRE EL MURO

Esta parada desarrolla el Derecho a la Libertad de Movimiento y los múltiples obstáculos con los que se encuentran las personas refugiadas de Palestina en esta cuestión.

8. NOURAREN ANTZERKIA

Geldaldi honek Palestinako errefuxiatuen maitasunari eta kulturari buruz hausnartzeko eta Erakundearen Biziak Kulturaleko Eskubideak zer esan nahi duen aztertzeak aukera ematen du.

8. EL TEATRO DE NOURA

Esta parada permite reflexionar acerca de la identidad y de la cultura de las personas refugiadas de Palestina y reconocer que significa el Derecho a la Vida Cultural de la Comunidad.

9. ERRESISTENZIAREN OLIBAK, OLIO MINGOTSA

Geldaldi honek Palestinako Lurralde Okupatuen barruko Ingurumen Eskubideen begirada bat eskaintzen die, hasien garrantzia eta hauek bermatzeko behar diren mekanismoak nabarmenduz.

9. LAS OLIVAS DE LA RESISTENCIA. EL ACEITE AMARGO

Esta parada ofrece una mirada a los Derechos Ambientales dentro del territorio Palestino Ocupado, destacando su relevancia y los mecanismos necesarios para su garantía.

10. UJADA EZ - (GRAINDIA) EXISTITZEN DIREN ETXEAK

Geldaldi honek Ezebitzeko Eskubidea auzerentzen du, oniztatzen eta giza duintasunerako funtzioa zutako gisa. Sabai bat izateak gain, etxe batek eskaintzen duen pertenezkoa, segurtasuna eta egokitasuna adierazten ditu.

10. LOS HOGARES QUE (YA NO) - (TODAVÍA) EXISTEN

Esta parada explora el Derecho a la Vivienda como un pilar fundamental para el bienestar y la dignidad humana. Más allá de contar con un techo, implica el sentido de pertenencia, seguridad y estabilidad que ofrece un hogar.

2025EKO JARDUEREN MEMORIA

29

Palestina mapan: ibilaldi solidarioa”: ibili, entzun eta hausnartu

“Palestina mapan: ibilaldi solidarioa” goiburuarekin, soinu-mapa ilustratua gune publikora eraman da herritarrekin topo egiteko. 2025ean zehar, bederatzia ibilaldi solidario egin dira Erreterian, Donostian, Hondarribian, Irunen eta Zarautzen.

Ibilaldietan, parte-hartzaileek tokiko ibilbideak egin dituzte entzungailuen bidez proiektuaren soinu-kontakizunak entzuten zituzten bitartean.

Proposamen honek hausnarketa eguneroko ingurunean txertatzeko aukera eman du, eta udalerrira entzuteko eta memoria partekatzeko leku bihurtu du.

Guztira, 173 pertsonak hartu dute parte bederatzia ibilaldietan, eta esperientziaren eta formatuaren iritziak oso onak izan dira.

Lehen ibilaldia 2025eko irailaren 19an izan zen, Erreteriko Atlantikaldia Jaialdiaren esparruan. Ekitaldi horretan parte hartzeak aukera eman zuen UNRWA Euskadiren proiektua eta lana ezagutarazteko informazio-stand baten bidez eta dibulgaziozko materialak banatuz, baita soinu-mapa ilustratuaren kopia fisikoak emanez ere.



Informazio-standa eta erakusketa Irungo Ventas auzoko Kultura Astean

2025eko urriaren 3tik 5era ospatutako Ventas auzoko Kultura Astea zela eta, UNRWA Euskadik auzoko elkartearekin batera parte hartu zuen herritarrei zuzendutako sentsibilizazioko jarduera batean.

Asteburuan zehar, UNRWA agentziaren lanari eta "Bakearen soinu-mapa ilustratua" proiektuari buruzko informazio-stand bat jarri zen. Gainera, parte hartu zuten hamar artistek egindako irudiak erakutsi ziren, proiektua kulturaren ikuspegitik eta ikuspegi bisualetik publiko anitzari hurbilduz.

Jarduerak auzokideekiko harreman hurbila sustatu zuen eta ingurune komunitario batean elkarriketarako eta harremanetarako topaguneak sortu zituen.



Hezkuntza-jarduera Jakintza ikastolako jardunaldi solidarioen esparruan

2025eko martxoan, Ordiziako Jakintza ikastolak jardunaldi solidarioak antolatu zituen, eta ikasleek modu parte-hartzailean aukeratu zuten gaia eta egin beharreko jarduera. Testuinguru horretan, ikasleek erabaki zuten Palestinako errefuxiatuei laguntzeko ekimen bat bultzatzea elastiko solidarioak sortuz eta salduz, eta bildutako dirua UNRWA Euskadira bideratu zuten.

Prozesuaren parte, UNRWA Euskadik saio bat antolatu zuen DBHko 4. mailako eta batxilergoko 1. mailako ikasleekin, Palestinako lurralde okupatuaren egoera eta agentziaren lana ardatz hartuta.

Saioa topagune hurbil eta parte-hartzailea izateko pentsatu zen, non ikasleek zalantzak argitu eta haien jarduera solidarioa testuinguruan kokatu ahal izan zuten. Horrela, giza eskubideen defentsarekin duten konpromiso kontziente eta kritikoa indartuko da.



Palestinako gastronomia, elkarteko eta sentsibilizatzeko topagunea

Bizkaiko Foru Aldundiak finantzaturako "Libanon dauden Palestinako emakume errefuxiatuen eskubideak sustatzeko errezetak tokiko ikuspegi global batetik" proiektuaren azken urtearen esparruan, UNRWA Euskadik gastronomiaren bidez Libanon dauden Palestinako errefuxiatuen egoera zabaltzen jarraitu zuen.

Tailerra eta dastaketa Leioako ostalaritza eskolako unibertsitate-jantokian

Proiektuan aurreikusitako ostalaritzako ikasleei zuzendutako tailerren barruan, Leioako ostalaritza eskolako ikasle eta irakasleekin lan egiteko aukera izan genuen. Jardueraren esparruan, UNRWA Euskadik Basque Culinary Center zentroarekin lankidetzan argitaratutako "Ahanzturaren aurkako errezetak: Palestinako emakume errefuxiatuekin Libanon sukaldatzen" liburuan agertzen diren errezetetako batzuk prestatzeaz gain, hummus eta za'atar kanapeak egin ziren, eta egun horretan EHUren Leioako campuseko unibertsitate-jantokira joan ziren 500 jankideei eskaini zitzaizkien.

Dastaketa horrekin batera, informazio-stand bat egon zen. Horretan, interesa zuten pertsonak aukera izan zuten Libanon dauden Palestinako errefuxiatuek, batez ere emakumeek, jasaten dituzten eskubideen urratzei buruzko informazioa jasotzeko.



Enkarterri-Fest jaialdi gastronomikoa

Bizkaiko Zallan 3.000 pertsona inguru bildu zituen Enkarterri-Fest jaialdian ere izan zen Palestinako gastronomia. UNRWA Euskadik falafel-showcooking bat egin zuen Palestinako Mohammed Farajallah sukaldari amateurraren eskutik, eta 30 lagunentzako dastatze itxi bat ere bai, non yalanyi, fatoush, labneh edo maqloba izeneko tradiziozko platerak dastatu ziren.

Parte-hartzaileek "Ahanzturaren aurkako errezetak" errezeta-liburuaren ale fisiko bat eraman ahal izan zuten etxera. Horrela, esperientzia gastronomikoa eta argitalpenaren protagonista diren Palestinako emakume errefuxiatuen bizitzak eta erresilientzia lotu ahal izan zituzten.



Elkarrizketa eta musika Sirian dauden Palestinako errefuxiatuen egoera ezagutarazteko

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako "Ahduntze-estrategiak Sirian Palestinako emakume errefuxiatuen zaugarritasuna murrizteko" proiektuaren esparruan, zenbait sentsibilizazioko jardura egin ziren, Sirian dauden Palestinako errefuxiatuen egoera jorrazteko.

Palestinako emakume errefuxiatuak: inspirazioa eta erresilientzia

Charla/ Hitzaldia

Mujeres refugiadas de Palestina: inspiración y resiliencia
Palestinako emakume errefuxiatuak: inspirazioa eta erresilientzia

Con la participación online de Suha Alnajjar mujer refugiada de Palestina
 Suha Alnajjarrek, Palestinako emakume errefuxiatuak, online parte hartuko du

22 de mayo, Maiatzak 22
 19:00-20:00
 Urdibai plaza 6,
 Bidatzenea, Portugalete

Inscripciones/ Izen ematea

Y llévate de regalo el comic "Allah, Señor con una vida"/ "Eraman Opar" "Allah, bizitza batekin amestuz".
 (Aforo Limitada/ Edukiera Murgatua)

Logos: UNRWA, Palestinako Errefuxiatuak, Euzko Legebiltzaria, Euzko Foruak, Euzko Legebiltzaria, Euzko Foruak.

Palestinako emakume errefuxiatuen egoera ardatz hartuta, hitzaldi-solasaldia egin zen Bidatzenean, Portugaleteko emakume guztien etxean, hain zuzen ere. Topaketan Sirian dauden Palestinako emakume errefuxiatuen egoerari buruz hitz egin zen eta Suha Alnajjar emakumearen lekukoa entzun eta okupazioaren pean emakume palestinarra izateak dakarrenari buruz hausnartu ahal izan genuen.

MUSIQA: Palestinatik mundura. Musikaren indarrari, babesari eta bakearen kulturari buruzko zikloa, Yarmoukeko piano-jotzailearen eskutik



Aurten, musika sentsibilizazioko jardueren ardatz nagusia izan da, Donostiako Udalaren Dantza eta Musika Eskolarekin lankidetzan egindako "MUSIQA: Palestinatik mundura" zikloaren bidez. Zikloan zehar, Sirian dauden Palestinako errefuxiatuen egoera ezagutarazi zen, eta gerraren eta lekualdaketen testuinguruetan musikak adierazteko, elkartzeko eta erresilientziarako tresna gisa duen zereginaren inguruan hausnartu zen.

Hiru proposamen osagarritan egituratu zen: musika eskolako ikasleei zuzendutako bi hitzaldi eta Aeham Ahmad piano-jotzailearekin topaketa bat, nazioartean Yarmoukeko piano-jotzaile ezaguna dena, bere bizi-ibilbidea eta musikaz, erbesteaz eta erresilientziaz zuen ikuspegia ezagutzeko aukera eman zuena. Azaroaren 27an Donostiako udalbatza-aretoan egindako kontzertu batekin amaitu zen ekimena, Palestinako Herriarekiko Elkartasunaren Nazioarteko Eguna ospatzearen esparruan. Leku guztiak bete ziren, 140 pertsonarekin.

Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak finantzaturako "Artibista gazteak: klimaren aldeko lana genero-ikuspegiarekin Palestinako emakume errefuxiatuen eskubideen urratzeetatik abiatuta" proiektuaren esparruan, 2025. urtean zehar hainbat jarduera egin dira euskal herritarrek Palestinako errefuxiatuen egoera humanitarioaz kontzientziazteko eta mobilizatzeko.

Gasteizko familiei zuzendutako “Kometak Palestinarentzat” tailerra



Urriaren 4an, Gasteizko Artium Museoan “Kometak Palestinarentzat” tailerra egin zen. Haurrei zuzendutako sormenezko jarduera bat izan zen, eta kolorez betetako kometak eta Palestinarako bake eta justizia mezuak egiten eta estanpatzen ikasi zuten. Irantzu Lekue eta Alba Tojo artistek eman zuten tailerra, eta kometa bakoitza diseinatzeko, estanpatzeko eta egiteko prozesuan lagundu zuten. 18 hurrek eta 13 helduk hartu zuten parte ekitaldian.

Palestinako emakumeen topaketa: bizitzaren aldeko ahotsak

Urriaren 7an, Hernaniko emakumeen etxean Abeer Al Butmeh ingurumen-ingeniarria eta Ingurumenaren Defentsarako Palestinako GKEen Sarearen (PENGON-Friends of the Earth Palestine) koordinatzailea denarekin topaketa bat egin genuen.

Bere lana ezagutu genuen, Palestinako lurralde okupatuan izandako ingurumenaren aurkako urratzeak ikusaraztean eta emakumeak ahalduentzean oinarritzen dena, energia berriztagarrien, uraren kudeaketaren eta nekazaritza jasangarriaren inguruko proiektuetan protagonista izan daitezten. Okupazioaren eraginari eta ekozidioaren aurkako erresistentziako estrategiei buruzko azterketa eta eztabaida egin genuen bertaratutako 19 pertsonekin batera, elikadura-burujabetza ardatz duten Palestinako tokiko ekimenak nabarmenduz.

Urriaren 10ean beste topaketa bat egin zen Bilarren, Arabako Errioxan, Abeer Al Butmeh eta Tamam Abusalama komunikazioan aditu eta errefuxiatuen eta Palestinako herriaren eskubideen aldeko aktibistarekin batera, jatorriz Gazako Jabalia errefuxiatu-esparrutik datorrena.

Palestinako lurralde okupatuaren ingurumenaren suntsipena eta ekozidioa, gerrarekin duten lotura eta giza eskubideen urratzea ikusaraztea izan zen topaketaren helburua, baita energia berriztagarrien, uraren kudeaketaren eta nekazaritza jasangarriaren proiektuetan emakumeek aldaketaren eragile gisa duten zeregina nabarmentzea ere. Horrez gain, Europak, bai historian zehar bai gaur egun, Palestinako ingurumenaren suntsipena eta giza eskubideen urratzea errazten duten politikei laguntza zuzena eta zeharkakoa ematean izan duen erantzukizunari buruzko funtsezko gaiak jorratu ziren.



Palestinako bizitzaren defendatzaileak. Justiziaren aldeko ahotsak nazioarteko batzarra.

Urriaren 9an, Gasteizko Artium Museoaan “Palestinako bizitzaren defendatzaileak. **Justiziaren aldeko ahotsak**” nazioarteko batzarra egin zen. Palestinako lurralde okupatuko bizitzaren eta justiziaren defentsaren gaiei heldu zien nazioarteko batzarrak, eta kazetaritzan, nazioarteko zuzenbidean eta giza eta ingurumenaren eskubideen aldeko aktibismoan adituak diren lau pertsonak parte hartu zuten: Teresa Aranguren, Tamam Abusalama, Felipe Gómez Isa eta Abeer Al Butmeh, linean partu hartu zuena Zisjordaniatik.

Helburua giza eskubideak urratzeaz, okupazioaz eta horrek Palestinako herriaren etorkizunean izango duen eraginari buruz hitz egitea izan zen, azterketa kritikoa, elkarrizketa eta herritarren parte-hartzea uztartuz. 124 pertsona bertaratu ziren.



“Kometak Palestinarentzat” ekintza artibista Gasteizen

UNRWA Euskadik, Irantzu Lekue artistarekin batera, “Kometak Palestinarentzat” ekintza artibista gauzatu zuen Palestinako bizitzaren, haurren eta justiziaren defentsan, urriaren 24an.

Parte-hartzaileek koloretako kometak sortu zituzten estanpazioaren teknika erabiliz. Kometa bakoitza hurrek bakean hazteko duten askatasuna eta eskubidea sinbolizatzen zuen arte-instalazio kolektibo baten parte izan zen. 2023an Gazan eraildako Refaat Alareer Palestinako olerkariaren “Hil behar banaiz” olerkiaren irakurketa kolektibo batekin amaitu zen ekintza. Irakurtzearekin batera bere ahotsari eta arteak eta hitzak bizirik mantentzen dituzten ahots guztiei omenaldia egin zitzaion.

“Kometak Palestinarentzat” arte eta kontzientziako ekintza kolektibo batean modu aktiboan parte hartzeko gonbidapena izan zen, non pertsona bakoitzak bere ikuspegia, energia eta justiziarako nahia jarri zuen. 60 lagunek hartu zuten parte ekintzan.



INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN BESTE BERRI ETA EKINTZA BATZUK

UNRWA agentziako bi ordezkariak Euskadira etorri ziren euskal lanbide-heziketaren eredia ezagutzera

Apirilean eta azaroan, Euskadik euskal lanbide-heziketako eredia ezagutzeko asmoz etorri ziren Jordaniako eta Libanoko UNRWA agentziako bi ordezkariak hartu zituen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziarekin lankidetzaren esparruan. Eskarmentua trukatzeari esker, Palestinako gazte errefuxiatuen prestakuntza eta enplegua aurkitzeko aukerak hobetuko dira.

Eusko Legebiltzarrak babes zabala eman dio UNRWA agentziari

Ekainean, Eusko Legebiltzarrak Ekialde Hurbilean bakea sustatzeari, Palestinako estatua aitortzeari eta Israelgo tropak kentzeari buruzko ebazpena onartu zuen. Ekimenak UNRWA agentziak Palestinako errefuxiatuekin egiten duen premiazko lana babesten du berriz ere, eta bere agindua ez ahultzeko eta programen jasangarritasuna ziurtatuko duen ohiz kanpoko finantzaketa bermatzeko eskatzen du.

Bilboko udalak UNRWA babesten du Gazan

Bilboko udalak hitzarmen bat sinatu zuen UNRWA agentziarekin Gazako herritarrik ahulenen osasuna indartzeko.

Udalaren lankidetzak eta giza eskubideak: UNRWA Euskadiren parte-hartzea

Urriaren 6an, UNRWA Euskadik "Euskal lankidetzaren estrategiak indarkerien aurrean" hitzaldian parte hartu zuen Bilbon, udalarekin eta beste erakunde batzuekin batera antolatuta. Topaketa udalaren lankidetzaren 30. urteurrenaren ospakizunaren esparruan kokatu zen, eta Gazako Sol Band taldearen emanaldiarekin amaitu zen.

Athletic Clubek eta UNRWA agentziak palestinarrei babesa eman diete

Athletic Club Fundazioak UNRWA agentziako ordezkariak eta Palestinako errefuxiatuen komunitatea gonbidatu zituen Katedraleko zelai erdira irtetera, eta zaleek elkartasuna adierazi zuten. Gainera, fundazioaren eskutik, Sirian dauden Palestinako errefuxiatuei laguntzeko proiektu bat garatzen ari da.

Lankidetzako kontseiluetan parte hartzea

2025ean zehar, Donostiako Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako Kontseiluan eta Bilboko Garapenerako Lankidetzako Udal Kontseiluan parte hartzen jarraitu zen.



Leioako hirugarren sektoreko azoka:

Hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin batera, komunitateak antolatzen duen azokan parte hartu genuen, gure lana ezagutarazteko.



Paddle Surf Plentzia


Plentziako itsasadarrean egin zen Goazen Sup Race zeharkaldi solidarioan lagundu zitzaion Goazen Up elkarteari. Jardunaldian ekintza sinbolikoak eta sentsibilizaziokoak egin ziren, hala nola paddle surfeko oholekin itsasadarrean "Gaza" hitza osatzea.



Sentsibilizazioko eta bizikidetzako hitzaldien zikloa Lehen Hezkuntzan

Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako sentsibilizazioko hitzaldien ziklo bat egin zen, Palestinako errefuxiatuak nor diren, UNRWA agentziaren lana zein den eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren garrantzia aztertzeke. Plentzia Eskolak herri bazkari batekin osatu zuen ekimena, non ikastetxeko familiek Palestinako plater tradizional bat prestatu zuten familia errefuxiatu batekin batera.



A photograph of two young women in a refugee camp. The woman on the left is wearing a grey hijab and a dark jacket, looking towards the right. The woman on the right is wearing a colorful floral headscarf and a blue and white UNRWA jacket with the organization's logo on the back. The background is a simple, outdoor setting with some fabric hanging.

**Gure lana aurrera eramaten laguntzen diguzuenoi, guztioi,
ESKERRIK ASKO, gure taldeko kide zaretela jakiteak
lasaitu egiten gaitu.**

**Talde konprometitu, ausart eta Palestinako errefuxiatuen
eskubideak defendatzen jarraitzeko asmoa duen
talde baten parte zarete. Bihotz-bihotzez, ESKERRIK ASKO.
Aurrera jarrai dezagun, 6 milioi arrazoi baino gehiago ditugu!**

- UNRWA Euskadi taldeak.

erkidego batzordea



unrwa
euskadi



Palestinako errefuxiatuen biztanleekin lan egiten dugu
etorkizun duin baten alde.

erkidego batzordeao



unrwa
euskadi

Bizkaiko Ordezkaritza

bañez de Bilbao 13, ezkerreko solairuartea
48009 Bilbo
Tlf. 944 346 731
Email: euskadi@unrwa.es

Gipuzkoako Ordezkaritza

Easo Kalea 77
20006 Donostia
Tlf. 691 564 056
Email: gipuzkoa@unrwa.es